

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

EZ HANKA EZ BURU

Konplikatua da




ARITZ GALARRAGA

Boris Pahor zendu da. 109 urterekin. Senekari arrazoi emanez, bizitzaren laburtasunari dagokionean. Nahiz ez zen izan bizidunen arteko bat, 1945etik, ezpada Natzweiler-Struthofetik bizirik ateratako bat, alegia hilen artetik. Bizirik atera izanaren erruduntasunak jota bizi izan zen, beraz, gehienera. Desleialtasuna ote da biziraun izana, osoki, gainera, are gozoki? Halako zalantzak aletu zituen *Necrópolis* izeneko liburuan, turista talde frantziar baten alboan, hogeitaz urteren buruan kontzentrazio-esparrura egindako bidaiaren ondotik. Egintzak gertatu ziren bezain gordin azalduz, inolako hunkigarrikeriarik gabe: “Inork, halere, ezin du ukatu bere izatearen barnean kontsolamendua sentitzen duenik, arriskuaren aurrean bera ez beste bat dagoenean. Kondenatu bati edaria eskaintzeko keinu bihozberan, ontasun mugagabe bat egoteaz gain, esker on pizar bat ere badago, zu baitzara besteari eskaintzen diona, eta ez bestea zuri”.

Baina, genozidio-literatura horren aldean (sorpresa batzuk eskaintzen dituen arren, jada nahiko murtzikatua), espero ez nituen gauzak irakurri ditut Pahorrenean. Xumeago, bere Italian esloveniar izateaz ere ari da, “Italiako estatuak gure identitatea suntsitzen zuen gure lurrian berean”, edo “Ez nuen ulertzen nola norbait kondenatua izan zitekeen bere gurasoak maitatu zituen hizkuntzan hitz egiteagatik” dioenean. Claudio Magrisek hitzaurrean idatzi bezala, “Pahorren patuaren ironia politikoa baita bera eta Triesteko beste esloveniar batzuk italiar gati-bu gisa izena emanda egotea”. Elkarrizketa batean utzi zuen erortzen: “Trieste konplikatua da, Katalunia eta Euskal Herria konplikatua diren bezala” –eta, ai, ezagutu izan balu Txingudiko badia!–. Ziur nago, halere, nahiago izan zuela jaiolekuaren konplikatasun hori, zer dakit, ezer pasatzen ez den lurralde batean sortzea baino. Gatazkarik gabeko eskualdeak existitzen baitira, baina ezin dut imajinatu zein puntutaraino izan daitezkeen aspergarri. ●

ABSTENTZIOA IRABAZLE...



A D U R

Migrazioa

Bidasoa ibaian Abderraman Bas gaztea zendu da Espainia eta Frantziako estatuen arteko muga zeharkatu nahian. Hendaia mugako kontrolak bertan behera uzteko eta korridore humanitarioak ezartzeko eskatu du hainbat elkarte.

Hiri eredua

Bestelako hiri-eredu baten aldeko manifestazioak 2.000 bat lagun bildu ditu Donostian. Donostiako Udalak entzungor egiten diela eta “botere publikoak hiria herritarrentzat pentsatzeari eta horren arabera jarduteari utzi” diotela salatu dute.

Oihaneder

Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxeari bukaera emanen diote ekainaren 30ean. Lazarraga Kultur Elkartek 2014an hasitako proiektua amaitu eta Gasteiz Antzokiaren proiektuan zentratuko dira. 900 jarduera inguru eta 66.500 erabiltzaile izan ditu urteotan.